


Euskal Hiria NET
Lurralde Estrategia Berria



**LAGen aldaketa,
horien berrazterketaren
ondorioz**

2011ko otsailak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

Asistencia Técnica:
TALLER DE IDEAS

LAGen aldaketa, horien berrazterketaren ondorioz



Aurkezpena

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) 1997an onartu ziren (28/1997 Dekretua). Eduki nagusiak hasierako etapetan zehaztu ziren, 80ko hamarkadaren bukaeran. Lurralde-plangintzaren nahiz sektoreko plangintzaren garapena, eta baita lurraldean eragina zuen legeriaren garapena ere artean oraindik hasiberriak ziren garaian planteatu ziren LAG.

Ekoizpen-sistemaren barruan aldaketak gertatutako etapa zen, hiri- eta ingurumen-narriadura handikoa. Testuinguru horretan, LAGen edukiak eta diziplina-planteamendua oinarritzko bi helbururen inguruan antolatu ziren:

- Une hartan garapen-prozesuei modu eraginkor eta iraunkorren aurre egiteko behar ziren tresna juridikoak eta plangintzakoak ez zituen lurraldean lurraldeko eta sektoreko prozesuak bideratuko zituen hirigintza- eta ingurumen-erreferentziako eta azpiegituren garapeneko lurralde-eredua definitzea.
- Aurreko industria-eredua agortzearen ondoriozko krisi handiko une batean eraldaketa ekonomiko eta sozialeko prozesuei lagunduko zien lurralde-eredua bultzatzea.

Urte horietan zehar, LAGek erakutsi dute eraginkorrak direla erronka horiei aurre egiteko eta, aldi berean, lurraldeko plangintza partzialeko eta sektoreko plangintzako tresnen garapen handiko etapa bultzatu dute.

Tresna horiek guztiek azken hamarkadan eboluzio garrantzitsua egiten lagundu dute. Euskal Herriak “hiri-erlaldaketa handia” deitu genezakeen etapa bizi izan du, ekonomia hirugarren sektorerantz zuzentzeko eta modernizatzeko prozesuarekin batera. Horrek garapen-fase berri bat sortu du, ingurumena nabarmen hobetu duena eta hiri-berrikuntza handia eragin duena.

Lurraldearen erlaldaketa-prozesuetan, ordea, hamarkada bat denboraldi laburra da. Gure lurraldearen oinarritzko osagaiak eta egitura funtsean ez dira aldatu. LAGen Lurralde Eredua Nukleo Anitzeko Hiriburu Sistemari, hiri ertainak eta horien inguruan eratutako eremu funtzionaletan, lurraldearen erabileren eta harrera-gaitasunaren arteko egokitzapenean oinarritutako ingurune fisikoaren kudeaketan eta eremu funtzionalak beren artean eta EAE kanpoaldearekin artikulatzen duen erlazio-sisteman oinarrituta dago. Ereduek lurralde-aldaketako prozesuak kudeatzeko erreferentzia baliagarria izaten jarraitzen du eta, gainera, denen adostasuna du bere erabilgarritasunari eta eraginkortasunari dagokionez.

Orain, lurralde-eredu hori abiapuntu hartuta, protagonismo handiagoa hartu duten edo eguneratu behar diren elementuak garatu eta eraldatzeko garaia da.

Beste batzuen artean, honako hauek dira elementu horietako batzuk: mugikortasun iraunkorra, eraikinek okupatuta dituzten eta

erabilera berriak edo intentsiboagoak onartzen dituzten espazioen berrerabilera eta ezagutzan intentsiboagoak diren ekonomia-jardueretarako guneen garapena. Ereduek lurraldearen kalitateari buruz, funtsezko iraunkortasun-faktore gisa egiten duen ekarpen aktiboari buruz eta oreka eta lehiakortasunerako oinarritzko elementu gisa berrikuntza bultzatzeko eskaintzen dituen aukeren aprobetxamenduari buruz, ereduak dituen alderdiak indartzea da garrantzitsua.

Lurraldeak azken hamarkadan izandako eboluzioaren eta eboluzio horrek LAGetatik eta lurraldeko eta sektoreko tresnetatik jaso duen erantzunaren diagnostikoa izan da LAGen Berrazterketa honen abiapuntua. Katedradunek eta gaian adituak direnek egindako diagnostiko-txostenak erabili, gako-alderdiei buruzko monografiak egin eta azken urteotako diziplina-aldaketa eta lurralde-esperientzia garrantzitsuenak aztertu ere egin dira.

Aldi berean, partaidetza-prozesu zabala garatu da Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen laguntzarekin eta administrazio-maila guztietako eta gizarteko eta sektore pribatuko hainbat esparrutako Adituen Foroaren ekarpenekin. EAEko udalerrri guztiak ere gonbidatu dituzte prozesuan parte hartzera.

Elementu horiek guztiek Euskal Hiria NET-Berrikuntza Ekosistema izeneko proposamen estrategikoa eratzen lagundu dute, etapa berri honetako bi paradigma garrantzitsuenak

abiapuntutzat hartzen dituenak. Berrikuntza eta iraunkortasuna txanpon beraren bi aurpegi dira: gure lurraldea etapa berri baterako prestatzeko premiarenak, alegia. Etapa horretan, lehiakortasuna, kohesio soziala eta garapen iraunkorra banandu ezinezko hiru elementu dira eta ezingo da horietako bakar batean ere aurrerapen eraginkorrik lortu besteak kontuan izan gabe.

Lurralde-proposamenen dokumentu hau indarrean dauden gidalerroekin modu osagarrian ondoan ezartzeko sortu da. LAGen aldaketa posible baten esparruan planteatu daitezkeen orientazioak eta zehaztapenak definitzeko deskribatutako lanen emaitzak jaso eta egituratzen ditu, gure lurraldea benetako garapen iraunkorreko eredu egituratzeko balioko duen oinarri bihurtzeko helburu nagusiarekin. Bizitegiak kuantifikatzeko metodoa berrikusteko proposamena ere hartzen du barruan.

LAG-EN 1997KO LURRALDE-EREDUA OSATZEN DUTEN OINARRIAK:

A

Eskualde Hiri gisa

9

- A.1. Hiru iraultzak
- A.2. Eraldaketa-prozesuan dagoen lurraldea
- A.3. LAG eta etapa bateko lorpenak

B

LAG eguneratzeko erronka berriak

21

- B.1. Iraunkortasuna eta lurraldea
- B.2. Klima-aldaketaren desafioa
- B.3. Berrikuntza eta lurraldea
- B.4. Zentro anitzeko Eskualde Hirirantz

C

Euskal Hiria Plus

29

- C.1. Lurralde irekia
- C.2. Europako Hegoaldeko Dortsala eta Diagonala
- C.3. Euskal Hiria. Errotula bat Europa berrian
- C.4. Euskal Hiria Plus
- C.5. Inguruneko lurraldeekin lankidetzan aritzeko aukerak

D

Lurralde-ekarpenak eta Berrikuntza

45

- D.1. Sareak eta paisaiak bikaintasunaren lurraldean
- D.2. Metropoli-eremuak. Berrikuntza Lurralde Bereziak
 - 2.1. Aukerak Bilboko metropolian
 - 2.2. Aukerak Donostiako metropoli-eremuan
- 2.3. Aukerak Gasteizko hiri-eremuan
- D.3. Hiri ertainak eta eremu funtzionalak
 - 3.1. Hiri ertainen protagonismoa
 - 3.2. Eraldaketa Ardatzak
 - 3.3. Eraldaketa Ardatzen garapena
 - 3.4. Eremu funtzionalak eta Eraldaketa Ardatzak
- D.4. Berrikuntza Nodoak
 - 4.1. Ekonomia berrirako guneak
 - 4.2. Teknologia-parkeen etorkizuna
 - 4.3. Industrializazio-gune ohiak
 - 4.4. Gune historikoak eta Nortasun Nodoak
 - 4.5. Gune berezi berritzaileak
- D.5. Euskal Hiriko ingurune fisikoa eta paisaiak
 - 5.1. Ingurumen-oreka berriak
 - 5.2. Korridore ekologikoak
 - 5.3. Paisaia eta lurraldea

E

Iraunkortasunerako eta Klima Aldaketarako estrategiak

107

- E.1. Konektagarritasuna eta mugikortasun iraunkorra
- E.2. Eraginkortasun energetikoa
- E.3. Hiri-garapen iraunkorrerako estrategiak

Aplikazio-arauak

125

Eranskinak

129

- 1. eranskina. Estatistika-eranskina
- 2. eranskina. Korridore Ekologikoen sarea
- 3. eranskina. Bizitegi-lurzoruen kuantifikazio-prozeduren eguneratzea

Euskal Hiria NET

Lurralde Estrategia Berria